

Koadro hauek denboran atzera begiratuta aspaldiko Herriko zaharren kontutxoak testigantza ematen diguten oroigarriak dira, niri atsegin zaizkidanak.

AMONA guztiak moñoñak dira, errespetua merezi dute, lanean asper-ezinak, eta sukaldeko epeltasunean ondorengoei dakiten guztia erakusten baitiete.

Hemen dakarzkite ehun urte dituzten koadro hauen kondaira edo istorio horien nondik norakoak.

Bost bat urte badira Andre kaleko etxe batera, joan eta sukaldean zeukaten koadroak ikusmina sortu zidala. Hain polita iruditu, bi galdera egin nizkion etxekoandeari:

- Noizkoa da koadro hau?
- Ene! Nik beti hortxe ezagutu det, gutxinez ehun urte baditu gure sukaldean.
- Nork egiña da?
- Ez dakit.

Nik orduan, lotsagabe, eskatu egin nion, kopia bat ateratzeko. Horrela, koadroa etxeratu, dena askatu, kopia atera, txukundu, berritu eta berriz ere jabeari eraman nion.



Handik bi edo hiru urtera, Kale Nagusiko etxe baten sarreran sartu nintzen nagusiaren baimenarekin, eta eskuinetara begiratu, hantxe zintzilik ikusi nuen bigarren koadroa. Zein amonaxo polita, guapa, ilobaxoari ilea orrazten! Liluratu nintzen, eta bide berdina hartu nuen: eskatu, kopia atera, berritu... Nagusiarri bi galdera egin eta iritsi nuen erantzuna: "Hori Andresenekuak nere izeberi emana".

"Andresenea"n Elkar liburu denda dago orain, baina hor, aspaldian, okindegi bat zegoen, ogia bakarrik saltzen zuten bi emakumek, bat alarguna eta bestea ezkongai; hau zen pintatzen aritzen zena, eta oso ona omen zen.

Nik nire baitan bi koadro horiek lotu egin ditut. Orain eredu zko Amonak dira.

Harridura sortu zitzaidan hainbeste urtetan nola jaso izan diren. Horregatik, maitasunez, koadroak jaso dituztenei, nire eskerrak.